

Giza Baliabideen Politika

Nortegas Energía Grupo SL, Nortegas Energía Distribución, SAU, NED España Distribución Gas, SAU eta NED Suministro GLP, SAU.

Politika honen helburua da talentua erakartzea, garatzea, mantentzea eta integratzea, garapen profesionala eta langile guztien parte-hartzea erraztuz, Nortegasen helburuak bete daitezzen. Horretarako, lege-esparruak eta kode etikoa bete beharko dira, eta honako hauek zaindu beharko dira: dibertsitatearekiko errespetua, aukera-berdintasuna, diskriminaziorik eza, eta lagileen interesek Nortegasen helburu estrategikoekin bat egitea prozesu guztietan, Nortegasen balioetan oinarritutako kultura sustatzeko.

1. Erakarri

Profesionalik onenak erakartzea eta kontratatzea ahalbidetzea. Horretarako, honako hauek egingo dira: erakundearen lanpostuen funtzioak eta baldintzak modu argian eta ikusgai definitu; barruko hautagaitzak lehenetsiko dira, beti ere profila egokia denean; hautaketa-prozesu objektiboak eta inpartzialak ziurtatuko dira; lehenengo esperientzia profesionala eskuratzea erraztuko da, beken, programen eta beste akordio batzuen bidez; eta ahal den guztietan, etengabeko kontratazioak erabiliko dira ziurtasuna eta egonkortasuna emateko.

2. Garatu

Langile guztien garapena eta sustapena bultzatuko dira. Horretarako, honako hauek egingo dira: prestakuntza planifikatuko da, gaitasunek eta ezagutzek negozioaren helburuekin eta balioekin bat egin ditzaten; langileak aldaketetara egokitzea sustatuko da, bai aldaketa teknologikoetara zein antolakuntza mailako aldaketara ere; Konpainia barruan ezagutza transferitzea erraztuko da; egindako lana aldizka ebaluatuko da; eta lanaren emaitzak jakinaraziko dira.

3. Mantendu

Talentua fidelizatuko da. Horretarako, honako hauek egingo dira: ordainketa-sistemetan koherentzia eta ekitatea mantenduko da; barneko arauak eta akordio kolektiboak ezarriko dira; ahalegina, erantzukizuna eta jarduera aintzatetsiko eta sarituko dira; emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra sustatuko da, enplegua, prestakuntza, garapen profesionala eta lan-baldintzak eskuratzeari dagokionez; eta uztartze-neurriak ezarriko dira, langile guztien bizitza pertsonalaren eta profesionalaren arteko oreka errazteko.

4. Integratu

Kolektiboaren parte izateko sentimendua bultzatuko da. Horretarako, honako hauek egingo dira: langile guztiek negozioaren eguneroko erritmoan parte hartuko dute, Konpainiaren estrategia garatzen lagunduko duten helburuak ezarriz; funtzio guztien arteko lankidetzaren suspertuko da, langile bakoitza Nortegasen proiektu komunaren parte sentitu dadin.